Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

# Arte Eszenikoak
# Artes Escénicas

## EAU 2023 USE

www.ehu.eus



## ARTE ESZENIKOAK — *ARTES ESCÉNICAS*

***Azterketa honek HIRU atal ditu. Atal bakoitzeko bi galderetako bati erantzun behar diozu.***
***Jarraibideetan adierazitakoei baino galdera gehiagori erantzunez gero, erantzunak ordenari jarraituta zuzenduko dira, harik eta beharrezko kopurura iritsi arte.***

***Ez ahaztu azterketa-orri guztietan kodea jarri behar duzula.***

Azterketa egiteko, 90 minutu dituzu. Azterketako bi aukerek atal berberak dituzte (hiruna atal).

**1. atala. Obraren iruzkina eta analisia (4 puntu).**

Alderdi hauen arabera egin behar dira iruzkina eta analisia:

a) Obraren estilo- eta argumentu-ezaugarrien azterketa.
   - Antzerki-generoa (0,5 puntu).
   - Argumentua eta obran ageri den gatazka nagusia (0,5 puntu).
   - Iritzi pertsonala, aztertutako obrari buruzko argudio teknikoetan oinarritua (0,5 puntu).
   - Argumentu horrek gaurkotasuna duen ala ez (0,5 puntu).

b) Egoera eta testuinguruaren karakterizazioa.
   - Obraren fitxa: egilea, garaia, kokapen geografikoa, egilearen ideia artistikoak (1 puntu).
   - Aztertutako obra zer alderdi soziokultural eta estetikotan kokatzen den eta garai horretako antzerki- eta arte-korronteak (1 puntu).

Antzerki-obraren iruzkinean eta analisian, hauek balioetsiko dira: koherentzia eta kohesioa, aberastasun lexikoa, hizkuntza-adierazpen egokia, zuzentasun ortografikoa eta gaiaren oinarriei buruzko ezagutzak.

**2. atala. Antzerki-teoriaren edo -kritikaren gaineko testu labur bati buruzko iruzkina (3 puntu).**

Testu-iruzkina orri betekoa izango da gehienez, eta alderdi hauek aztertu behar ditu:

- Testuko ideia nagusiak eta bigarren mailako ideiak identifikatzea (1 puntu).
- Testuan agertzen diren zenbait hitz edo termino tekniko estetiko edo interesgarri adieraztea eta azaltzea (1 puntu).
- Ikasturtean izan dituzun esperientziak (eta ikusitako lan eszenikoak) oinarri hartuta, deskribatu nola konpondu zenuten edo nola konponduko zenituzkeen eszenaratzean inplikatutako alderdiak (adibidez, kritikariak aipatutakoak) (1 puntu).

**3. atala. Termino teknikoei buruzko galderak (3 puntu)**

Erantzunek argiak eta laburrak izan behar dute. Bost lerro nahikoak dira bakoitzeko. Zuzentasun terminologikoa eta sintaktikoa balioetsiko da, eta 0,5 puntu emango zaio bakoitzari.

2023

**ARTE ESZENIKOAK** | ***ARTES ESCÉNICAS***

***Este examen tiene TRES partes. En cada parte debes contestar a una de las dos preguntas.***
***En caso de responder a más preguntas de las estipuladas, las respuestas se corregirán en orden hasta llegar al número necesario.***

***No olvides incluir el código en cada una de las hojas de examen.***

La duración del examen es de 90 minutos. Las dos opciones del examen constan de los tres mismos apartados.

**Apartado 1. Comentario y análisis de la obra teatral (4 puntos).**

El comentario y análisis se realizará en función de los aspectos siguientes:

a) Análisis de las características estilísticas y argumentales de la obra.
   - Género teatral (0,5 puntos).
   - Argumento y conflicto principal que aborda la obra (0,5 puntos).
   - Opinión personal fundamentada en argumentos técnicos sobre la obra analizada (0,5 puntos).
   - Vigencia de tal argumento hoy en día (0,5 puntos).

b) Situación y caracterización del contexto.
   - Ficha de la obra: autor/a, época, localización geográfica, ideas artísticas del/la autor/a (1 punto).
   - Aspectos socioculturales y estéticos en los que se enmarca la obra analizada, corrientes escénico-artísticas de la época (1 punto).

En el comentario y análisis de la obra escénica se valorará la coherencia y cohesión, la riqueza léxica, la utilización de la expresión lingüística adecuada, la corrección ortográfica y los conocimientos sobre los fundamentos de la materia.

**Apartado 2. Comentario de un texto breve sobre teoría o crítica escénica (3 puntos).**

El comentario de texto tendrá como máximo un folio y tratará sobre los siguientes aspectos:

- Identificación de las ideas principales y de las ideas secundarias del texto (1 punto).
- Señalar y explicar algunas palabras o términos técnicos estéticos o de interés que aparecen en el texto (1 punto).
- Basándote en tus propias experiencias desarrolladas durante el curso (y en aquellas obras escénicas vistas) describe cómo resolvisteis o cómo resolverías los diferentes aspectos implicados en la puesta en escena (por ejemplo, los destacados por el/la crítico/a) (1 punto).

**Apartado 3. Preguntas sobre Términos Técnicos (3 puntos).**

Las respuestas deben ser claras y breves; será suficiente con cinco líneas como máximo para cada una de ellas. Se valorará la corrección terminológica y sintáctica y cada una de ellas se calificará con 0,5 puntos.

2023

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO PROBAK

2023ko OHIKOA

*PRUEBAS DE ACCESO A LA UNIVERSIDAD*

*ORDINARIA 2023*

# ARTE ESZENIKOAK

# *ARTES ESCÉNICAS*

**1. ATALA – Iruzkina eta analisia. Bietako bat aukeratu.** **(4 puntu)**

a) William Shakespeare. *Macbeth.*
b) Henrik Ibsen. *Andere-etxea.*

**2. ATALA - Antzerki-teoriaren edo -kritikaren gaineko testu bati buruzko iruzkina. Bietako bat aukeratu.** **(3 puntu)**

a) Samuel Beckett. *Godoten esperoan.*
b) Sofocles. *Antigona.*

**3. ATALA - Hamabi termino tekniko hauetatik SEIren definizioa eman.** **(3 puntu)**

1. Teatro pobrea (Antzerki pobrea).
2. Teatro epikoa (Antzerki epikoa).
3. Laugarren horma.
4. Albo-hizketa.
5. Groteskoa.
6. Opera.
7. Pastorala.
8. Platea.
9. Eszenografia.
10. Argiztatzailea.
11. Antagonista.
12. Arlekina.

2023

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO PROBAK

2023ko OHIKOA

*PRUEBAS DE ACCESO A LA UNIVERSIDAD*

*ORDINARIA 2023*

**ARTE ESZENIKOAK** ***ARTES ESCÉNICAS***

**APARTADO 1.- Comentario y análisis. Contesta a una de las dos opciones.** **(4 puntos)**

a) William Shakespeare. *Macbeth.*
b) Henrik Ibsen. *Casa de muñecas.*

**APARTADO 2. Comentario de un texto de teoría o crítica teatral. Contesta a una de las dos opciones.** **(3 puntos)**

a) Samuel Beckett. *Esperando a Godot.*
b) Sófocles. *Antígona.*

**APARTADO 3.- Definición de SEIS de estos doce términos técnicos.** **(3 puntos)**

1. Teatro Pobre.
2. Teatro Épico.
3. Cuarta pared.
4. Aparte.
5. Grotesco.
6. Ópera.
7. Pastoral.
8. Platea.
9. Escenografía.
10. Iluminador/a.
11. Antagonista.
12. Arlequín.

2023

**1. ATALA. Iruzkina eta azterketa.**

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco | Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO PROBAK

2023ko OHIKOA

*PRUEBAS DE ACCESO A LA UNIVERSIDAD*

*ORDINARIA 2023*

**ARTE ESZENIKOAK** **_ARTES ESCÉNICAS_**

*a) Macbeth*. William Shakespeare – I. EKITALDIA, XIV. ESZENA

MACBETH: Zerk akuilatzen du nire asmoa? Anbizioa da, besterik ez, anbizioa, zeina bere buruaren gainean jauzi egin eta amiltzen baita.

*(LADY MACBETH sartzen da)*

Eta? Berririk?

LADY MACBETH: Ia afaldu du. Zergatik irten zara?

MACBETH: Nitaz galdetu al du?

LADY MACBETH: Noski.

MACBETH: Ez dezagun aurrera egin ekintza horretan. Ohorez bete nau, eta ospea irabazi dut; gailurrean erakutsi beharko nuke ohorea, eta ez berehala zikindu.

LADY MACBETH: Horditurik ote zegoen zu janzten zintuen itxaropenak? Edo lo zegoen eta esnatu da orain, berde eta zurbil begiratzeko hain harro begiratu zionari? Orain badakit zenbat balio duen zure maitasunak. Beldur al zara zure ekintzetan zure desiran zaren bezain ahula izateko?

MACBETH: Aski da, otoi. Gizon bat ausartzen den guztian ausartzen naiz, eta ez da gizonago gehiago ausartzen dena.

LADY MACBETH: Zer piztiak bultzatu zintuen, orduan, proiektua niri jakinaraztera? Gizon zinen ausartu zinenean, eta gizonago zinateke areago ausartuko bazina. Ez aukerarik, ez lekurik zegoen, eta sortu nahi zenituen. Orain beren kasa sortu direnean, haien presentziak nahasi egiten zaitu. Bularra eman dut, eta badakit zein den samurra bularra hartzen duen umea maitatzea; bada, irribarrez niri begira dagoela, nire titiburua haren hortzoi zurietatik atera eta kaskezurra hautsiko nioke, hala zin egin egin banu zuk zin egin duzun bezala.

MACBETH: Eta huts egiten badugu?

LADY MACBETH: Huts egin! Tenkatu zure balioaren arkua ahal duzun beste, eta ez dugu huts egingo. Duncan lotan dagoenean (eta hala egongo da bidaiako nekearen ondoren), haren bi zaindariak ardo eta pattarrarekin hain errendituta utziko ditut, ezen oroimena, garunaren zaindaria, kea izango baita, eta arrazoimenaren gordailua, alanbike bat. Txerri-amets batean haien gorputz beratuak heriotzan bezala etzaten direnean, zer ezingo diogu egin zuk eta biok Duncan babesgabe bati? Haren ofizial mozkor arrailduei egotziko diegu errua, gure delituaren zigorra ordaindu dezaten.

MACBETH: Semeak besterik ez ekarri mundura, zure adore gogorrak ez baititu arrak baino moldatu behar. Bi zaintzaileok odolez zikindu eta haien sastakaiak erabiltzen baditugu, nork ez du sinetsiko haiek egin zutela?

LADY MACBETH: Nor ausartuko da bestela pentsatzen, haren heriotzaren gainean minezko garrasiak egiten baditugu?

MACBETH: Prest nago. Nire gorputzeko zuntz bakoitza tenkatzen dut ekintza beldurgarrirako. Goazen, engaina dezagun mundua irribarre bat erakutsiz: ezkuta beza aurpegi faltsuak bihotz faltsuak dakiena.

*(Irteten dira)*

2023

## 1. ATALA. Iruzkina eta azterketa.

*b) Andere-etxea*. Henrik Ibsen - III. ekitaldia

NORA: Zortzi urte daramagu ezkonduta. Ez al zara konturatzen gaur lehen aldia dela zuk eta nik, senar-emazteok, serio hitz egiten dugula?
HELMER: Zer esan nahi duzu?
NORA: ¡Zortzi urte... gehiago oraindik! Elkar ezagutu genuenetik, ez dugu elkarrizketa serio bat ere izan.
HELMER: Egin behar al zintudan, bada, nire kezken konfiantzako gordetzaile, jakinda zuk ezin zenidala lagundu konpontzen?
NORA: Ez naiz kezkez ari. Esaten ari naiz ez dugula inoiz serio hitz egin, ez garela inoiz saiatu elkarrekin iristen gauzen muinera.
[…]
NORA: Erabat bakarrik egon behar dut, neure buruari buruz eta inguruan dudanari buruz orientatzeko. Ezin naiz gelditu gehiago zurekin.
HELMER: Nora, Nora!
NORA: Oraintxe bertan alde egin nahi dut. Pentsatzen dut Cristinak utziko didala gaua pasatzen bere etxean...
HELMER: Erotu al zara?... Ez dizut utziko! Debekatu egiten dizut!...
NORA: Gertatua gertatuta, alferrik da orain zuk niri ezer debekatzea. Nirea den guztia eramango dut. Ez dut nahi ezer zugandik, ez orain eta ez inoiz ere.
HELMER: Zer erokeria da hori?
NORA: Bihar, nire etxera joango naiz... hau da, nire herrira. Hala, errazagoa izango zait lana aurkitzea.
HELMER: Itsu zaude gero, eskarmenturik gabeko umea!
NORA: Saiatuko naiz ni eskarmentua hartzen, Torvaldo.
HELMER: Zure etxea, zure senarra, zure seme-alabak abandonatzea!... Eta jendeak zer esango ez al duzu pentsatu?
NORA: Ezin ditut pentsatu xehetasun horiek. Gauza bakarra dakit: ezinbestekoa dela niretzat.
HELMER: O, gorrotagarria da! Betebehar sakratuenei horrela traizioa egitea!
NORA: Zeri esaten diozu zuk betebehar sakratuenak?
HELMER: Esan behar al zaizu? Ez al dira, bada, zure senarrekiko eta seme-alabekiko betebeharrak?
NORA: Baditut beste betebehar batzuk ez gutxiago sakratuak.
HELMER: Ez duzu holakorik. Zer betebehar dira horiek?
NORA: Neure buruarekiko betebeharrak.
HELMER: Beste ezeren aurretik, emaztea eta ama zara.
NORA: Dagoeneko ez dut horretan sinesten. Uste dut beste ezeren aurretik gizakia naizela, zu bezala... edo, behintzat, izaten saiatu behar dudala. Badakit gizon gehienek arrazoia emango dizutela, eta badagoela halako zerbait liburuetan idatzia. Baina orain ezin naiz kontentatu gizonek esaten dutenarekin eta liburuetan idatzia dagoenarekin. Neure kabuz pentsatu behar dut honetan guztian, eta ulertzen saiatu.

2023

**2. ATALA. Antzerki-teoriaren edo -kritikaren gaineko testu bati buruzko iruzkina.**

a) *Godoten esperoan*. Miguel Gabaldon, Antzerki-beharra, 2013/05/10
https://espectaculosenmadrid.wordpress.com/2013/05/10/esperando-a-godot-dirigida-por-alfredo-sanzol-absurdo/



Argazkia: https://teatrero.com/esperando-a-godot-2013/

Alfredo Sanzol-ek *Godoten esperoan* dibertigarri bat darama Teatro Valle-Inclán antzokira. “Ez zagok zer eginik”, dio Estragon-ek *Godoten esperoan*-en hasieran. Baina Alfredo Sanzol-ek egin egin du: Samuel Beckett-en klasikoa Madrileko Teatro Valle-Inclánen oholtza gainean jartzen saiatu da, eta irlandarraren hitzez bete du agertokia. Absurdoz gainezka jarri du antzokia. Eta barrez, barrez gainezka. Izan ere, Beckett-en testuari hamaika modutara ekin dakioke. […]
Urdin infinituko oihalak altxatzen dira Valle-Inclánen agertokiaren goialderantz (amaigabeak, ibilbidearen erdian foku-itsaso bat dutela), ikusleari ongietorria emanez. Eszenan, askoz gehiagorik ez: zuhaixka batzuk eta zuhaitz ospetsua (zuhaixka horietako beste bat izan liteke berdin-berdin); haren ondoan, Estragon eta Vladimir, Godot-en zain, baina Godot ez da inoiz iritsiko. […] Ez da ezer gertatzen maila dramatikoan. Ez dago planteamendurik, korapilorik eta amaierarik (zer esango luke Syd Field-ek horri buruz…). Horren ordez, luzamendua dago, atzerapena, luzapen etengabea. Eta itxarote horretan, makina bat xehetasun. Eta bitartean, ez da ezer gertatzen. Beno, bai. Bizitza.
Sanzol-ek pertsonaia horien alderdirik komiko eta zoroena bultzatzeko antolatu du eszenaratzea, eta une benetan dibertigarriak lortzen dituzte haiek. […] Sanzol-ek ikuskizun arin bat prestatu du, argiz eta mugimenduz betea, joan den mendeko absurdo klasiko honekin dibertitzea lortzen duena (eta horren froga dira institutu-txangoetatik tropelean iritsita funtzioan dauden neska-mutilen barre-algarak). […] Izan ere, barrearen atzean, idazlan “izugarri komiko” horren atzean, autoreak berak zioenez, larritasun infinitua dago, gizakiaren absurdo hori. Gizaki atsekabetu bat, XX. mendearen lehen erdiko gatazka beliko handien ondoren desorientatua. […]

CDN Aretoa: Teatro Valle-Inclán. 2013/4/19. EGILEA: Samuel Beckett. BERTSIOA: Ana María Moix. ZUZENDARITZA: Alfredo Sanzol. ZUZENDARITZA-LAGUNTZAILEA: Pietro Olivera. PRODUKZIOA: Centro Dramático Nacional. AKTOREAK: Miguel Ángel Amor, Paco Déniz, Juan Antonio Lumbreras, Juan Antonio Quintana, Pablo Vázquez. ESZENOGRAFIA: Alejandro Andújar. ARGIZTAPENA: Pedro Yagüe. FOTOGRAFIA: David Ruano.

**2. ATALA. Antzerki-teoriaren edo -kritikaren gaineko testu bati buruzko iruzkina.**

2023

b) *"Antigone" taularatuko du Horman Poster kolektiboak*. Testuaren idazlea: Uberan (Euskal Idazleen Elkartea), 2020/11/04
http://www.uberan.eus/?kaia/item/antigone-taularatuko-du-horman-poster-kolektiboak




Argazkia:https://www.donostiakultura.eus/index.php?option=com_flexicontent&view=items&cid=5&id=97587&lang=es&r=20210222

Antigone edo ezetzaren beharra taularatuko du Bilboko Horman Poster kolektiboak Arriaga antzokian. Antzezlana Sofoklesen Antigona testutik eta Antigonaren beste bertsio garaikide batzuetatik (Jokin Zaitegi, Jean Anouilh, Bertolt Brecht, Maria Zambrano, Slavoj Zizek eta Judith Butler) abiatutako idazketa kolektibo librea da. […] Euskal arte eszeniko garaikideetan *Antigona* bezalako klasikoak geureganatuz boterearen inguruko galderak, kezkak eta hausnarketak eguneratzeko ariketa luzatzen digu konpainiak.
**Alaia Martinek idatzitako sinopsia**:
"Antigone obra klasiko ezin garaikideagoa da eta ezinbestekoa zen haren oihartzunak euskaraz entzunaraztea. Antzezlan hau, jendarteko arauak, familia kodeak, botere harremanak, egitura desegituratuak eta hauek guztiak kolokan jartzen dituzten pasioen salda odoltsua da. Pertsonaia poliedriko eta indartsuz hezurmamitutako festa distiratsu bat."
[…]
**Antzezlanaren ezaugarriak**
*Antigone edo ezetzaren beharra* testu originalaren interpretazio garaikidea da. Sofoklesen testu klasikoaren pertsonaiak eta gertakari nagusiak errespetatzen dira tramari dagokionez, baina antzezlanera hurbiltzeko egungo testuinguru eta gogoetatik abiatuz. Eta historian zehar idatzitako beste bertsio eta itzulpen batzuetan inspirazioa bilatuz […], lantaldea mito bilakatutako kontakizunaren barreneraino sartu da boterearen inguruko egungo gatazkak eta ikuskerak aztertzeko.
Hizkuntza eszeniko eta estetika ezberdinekin eraiki du kolektiboak antzezlan hau: off-eko narrazioa, arbola genealogikoa argitzen duten kartelak, gorputza eta ahotsa eraldatzen duten objektuak, mugimendu koreografiatua eta eszena koral nahiz bakarkakoak. Elementu horiek guztiek, musika, argia eta jantziteria zainduz horniturik, ikuslea antzezlanaren traman murgiltzen dute, antzinako Grezia eta gaur egungo gizartearen arteko igurtzi katartikoa eraginez.[…]

2023

UNIBERTSITATERA SARTZEKO PROBAK

2023ko OHIKOA

*PRUEBAS DE ACCESO A LA UNIVERSIDAD*

*ORDINARIA 2023*

**ARTE ESZENIKOAK**

***ARTES ESCÉNICAS***

JATORRIZKO TESTUAREN IDAZLEA: Sofocles. EUSKARAZKO BERTSIOA: Kolektiboa. ZUZENDARITZA: Igor de la Quadra. INTERPRETEAK: Xanti Agirrezabala, Maite Aizpurua, Jon Ander Urresti eta Matxalen de Pedro. ESZENOGRAFIA ETA PLASTIKA: Miriam Isasi. JANTZITERIA: Alberto Sinpatron. SOINUA: Asier Errenteria. ARGIZTAPENA: Arantza Flores. IKUS-ENTZUNEZKOAK: Arriguri

2023

## APARTADO 1. Comentario y análisis

*a) Macbeth*. W. Shakespeare – Acto I., Escena XIV

MACBETH: ¿Qué espolea mi propósito? La ambición, nada más, la ambición que, saltando sobre sí misma, se derrumba.
*(Entra LADY MACBETH.)*
¿Y bien? ¿Algo nuevo?
LADY MACBETH: Ya casi ha cenado ¿Por qué has salido?
MACBETH: ¿Preguntó por mí?
LADY MACBETH: Claro.
MACBETH: No sigamos adelante con esta empresa. Me ha colmado de honores y he ganado un prestigio que debiera lucir en su esplendor, no mancillarlo tan pronto.
LADY MACBETH: ¿Estaba ebria la esperanza que te vestía? ¿O dormía y se despierta ahora para mirar verde y pálida lo que miró tan arrogante? Ahora sé cuánto vale tu amor. ¿Tienes miedo de ser tan débil con tus actos como lo eres con tu deseo?
MACBETH: Basta, te lo ruego. Me atrevo a todo cuanto se atreva un hombre, y no es hombre quien se atreva a más.
LADY MACBETH: ¿Qué bestia entonces te impulsó a revelarme el proyecto? Un hombre eras cuando te atreviste y más hombre serías si te atrevieses a más. Ni ocasión ni lugar se ofrecían y ya querías crearlos. Ahora que se crean ellos mismos, su presencia te descompone. He dado de mamar, y sé qué tierno es amar al bebé que mama: pues bien, cuando me mirara sonriendo le arrancaría mi pezón de sus blancas encías y le partiría el cráneo, si así lo hubiera jurado yo como tú lo has jurado.
MACBETH: ¿Y si fallamos?
LADY MACBETH: ¡Fallar! Tensa hasta donde puedas el arco de tu valor y no fallaremos. Cuando Duncan esté dormido (y lo estará después de las fatigas del viaje) he de dejar a sus dos guardianes con vino y aguardiente, tan vencidos, que la memoria, guardiana del cerebro, será humo, y el recipiente de la razón, un alambique. Cuando en un sueño de cerdos sus macerados cuerpos se tumben como en la muerte, ¿que no podremos tú y yo llevar a cabo sobre un Duncan desvalido? Culparemos a sus oficiales borrachos como cubas, para que paguen la pena de nuestro delito.
MACBETH: Alumbra sólo varones, que tu duro temple no debe forjar sino machos. Si a los dos guardianes manchamos con sangre y usamos sus puñales, ¿quién no creerá que fue por ellos hecho?
LADY MACBETH: ¿Quién osará pensar distinto si rugimos de dolor sobre su muerte?
MACBETH: Estoy listo. Tenso cada fibra de mi cuerpo para el terrible acto. Vamos, engañemos al mundo mostrando una sonrisa: esconda el falso rostro lo que sabe el corazón falso.
*(Salen.)*

2023

## APARTADO 1. Comentario y análisis

*b) Casa de muñecas*. H. Ibsen - III. Acto

NORA: Llevamos ocho años casados. ¿No te percatas de que hoy es la primera vez que tú y yo, marido y mujer, hablamos con seriedad?
HELMER: ¿Qué quieres decir?
NORA: ¡Ocho años... más todavía! Desde que nos conocimos no hemos tenido una sola conversación seria.
HELMER: ¿Es que debía yo hacerte confidente de mis preocupaciones?; que tú, a pesar de todo, ¿no podías ayudarme a resolver?
NORA: No me refiero a preocupaciones. Estoy diciéndote que nunca hemos hablado en serio, que nunca hemos intentado llegar juntos al fondo de las cosas.
[…]
NORA: Necesito estar completamente sola para orientarme sobre mí misma y sobre lo que me rodea. No puedo quedarme más contigo.
HELMER: ¡Nora, Nora!
NORA: Quiero marcharme en el acto. Supongo que Cristina me dejará pasar la noche en su casa...
HELMER: ¿Has perdido el juicio?... ¡No te lo permito! ¡Te lo prohíbo!...
NORA: Después de lo que ha pasado, es inútil que me prohíbas algo. Me llevo todo lo mío. De ti no quiero nada, ni ahora ni nunca.
HELMER: ¿Qué locura es ésa?
NORA: Mañana salgo para mi casa... es decir, para mi tierra. Allí me será más fácil encontrar un empleo.
HELMER: ¡Qué ciega estás, criatura sin experiencia!
NORA: Ya procuraré adquirir experiencia, Torvaldo.
HELMER: ¡Abandonar tu hogar, tu marido, tus hijos!... ¿Y no piensas en el qué dirán?
NORA: No puedo pensar en esos detalles. Sólo sé que es indispensable para mí.
HELMER: ¡Oh, es odioso! ¡Traicionar así los deberes más sagrados!
NORA: ¿A qué llamas tú los deberes más sagrados?
HELMER: ¿Habrá que decírtelo? ¿No son tus deberes con tu marido y tus hijos?
NORA: Tengo otros deberes no menos sagrados.
HELMER: No los tienes. ¿Qué deberes son ésos?
NORA: Mis deberes conmigo misma.
HELMER: Ante todo eres esposa y madre.
NORA: Ya no creo en eso. Creo que ante todo soy un ser humano, igual que tú... o, al menos, debo intentar serlo. Sé que la mayoría de los hombres te darán la razón, y que algo así está escrito en los libros. Pero ahora no puedo conformarme con lo que dicen los hombres y con lo que está escrito en los libros. Tengo que pensar por mi cuenta en todo esto y tratar de comprenderlo.

2023

**APARTADO 2. Comentario de un texto de teoría o crítica escénica**

a) *Esperando a Godot*. Miguel Gabaldon, Mono de teatro, 10/05/2013
https://espectaculosenmadrid.wordpress.com/2013/05/10/esperando-a-godot-dirigida-por-alfredo-sanzol-absurdo/



Fotografía: https://teatrero.com/esperando-a-godot-2013/

Alfredo Sanzol lleva un divertido Esperando a Godot al Teatro Valle-Inclán "No hay nada que hacer", dice Estragón al comienzo de Esperando a Godot. Pero Alfredo Sanzol hace y se atreve a poner el clásico de Samuel Beckett sobre las tablas del Teatro Valle-Inclán de Madrid, llenando el escenario de las palabras de irlandés. Colmando el teatro de absurdo. Y de risas, muchas risas. Porque el texto de Beckett se puede afrontar de mil maneras […] Telas de azul infinito que se elevan hacia las alturas del escenario del Valle-Inclán (interminables, con un mar de focos a medio recorrido) dan la bienvenida al espectador. En escena, poco más: algunos arbustos y el famoso árbol (que más bien podría ser otro arbusto más) a la vera del cual Estragón y Vladimir esperan a Godot sin que éste llegue jamás. […] No sucede nada a nivel dramático. No existe planteamiento, nudo y desenlace (qué diría Syd Field de esto…). En su lugar hay dilación, retraso, una prórroga continua. Y en esa espera, una multitud de detalles. Y nada sucede mientras tanto. Bueno, sí. La vida. Sanzol centra su puesta en escena en potenciar la vertiente más cómica y loca de estos personajes, que consiguen momentos realmente divertidos. […] Sanzol consigue un espectáculo ligero, lleno de luz y de movimiento, que divierte (y muestra son las risas de la chavalada presente en la función, hordas de excursiones de instituto) con este absurdo clásico del siglo pasado. […] Porque, detrás de la risa, de esa obra "horriblemente cómica", como decía el propio autor, está la angustia infinita, ese absurdo del ser humano. Un ser humano desolado, desorientado tras los grandes conflictos bélicos de la primera mitad del siglo XX. […]

CDN Sala: Teatro Valle-Inclán. 19/4/2013. AUTORIA: Samuel Beckett. VERSIÓN: Ana María Moix. DIRECCIÓN: Alfredo Sanzol. AYUDANTE DE DIRECCIÓN: Pietro Olivera. PRODUCCIÓN: Centro Dramático Nacional REPARTO: Miguel Ángel Amor, Paco Déniz, Juan Antonio Lumbreras, Juan Antonio Quintana, Pablo Vázquez. ESCENOGRAFÍA: Alejandro Andújar. ILUMINACIÓN: Pedro Yagüe. FOTOGRAFÍA: David Ruano.

**APARTADO 2. Comentario de un texto de teoría o crítica escénica**

2023

b) *El colectivo Horman Poster estrena 'Antigone edo ezetzaren beharra' en el Teatro Arriaga*. Artezblai, 04/11/2020
http://www.artezblai.com/artezblai/el-colectivo-horman-poster-estrena-antigone-edo-ezetzaren-beharra-en-el-teatro-arriaga.html




Fotografía:https://www.donostiakultura.eus/index.php?option=com_flexicontent&view=items&cid=5&id=97587&lang=es&r=20210222

El colectivo Horman Poster estrena el 5 de noviembre en el Teatro Arriaga de Bilbao 'Antigone edo ezetzaren beharra'. […] Antigone edo ezetzaren beharra' es una versión libre de la 'Antígona' de Sófocles y de otras versiones contemporáneas del mismo texto (Anouilh, Brecht, Zambrano, Zizek, J. Butler…). A través de este espectáculo, el colectivo Horman Poster comparte su nueva apuesta artística colaborativa con el público. […] Mediante la adaptación de clásicos como 'Antígona' a las artes escénicas vascas contemporáneas, la compañía propone un ejercicio de actualización de distintas cuestiones, inquietudes y reflexiones relacionadas con el poder.

**Sinopsis de Alaia Martin**:

*"Antígona es una obra clásica totalmente contemporánea y era necesario hacer oír sus ecos en euskera. Esta obra teatral es un caldo ensangrentado por las reglas sociales, los códigos familiares, las relaciones de poder, las estructuras desestructuradas y las pasiones que entran a cuestionar todo lo que se cuece. Una fiesta brillante que se materializa mediante personajes fuertes y poliédricos"*. […]

**Características de la obra:**

´Antigone edo ezetzaren beharra' es una interpretación contemporánea del texto original. En lo que respecta a la trama, se respetan los personajes y sucesos principales del texto clásico de Sófocles, pero tomando el contexto y la reflexión actual como punto de partida para aproximarse a la obra. Y buscando la inspiración en otras versiones y traducciones que se han escrito a lo largo de la historia […], el grupo de trabajo se ha adentrado hasta lo más hondo del relato convertido en mito, para analizar las visiones y los conflictos actuales en torno al poder.

El colectivo ha construido esta obra utilizando diferentes lenguajes escénicos y estéticos: narración en off, carteles que iluminan el árbol genealógico, objetos que transforman el cuerpo y la voz, movimiento coreografiado y escenas tanto corales como individuales.

2023

Todos estos elementos, adornados con una cuidada selección de música, luz y vestuario, permiten al espectador sumergirse en la trama, generando una fricción catártica entre la antigua Grecia y la sociedad actual. […]

AUTOR DEL TEXTO ORIGINAL: Sófocles. VERSIÓN EN EUSKERA: Colectivo. DIRECCIÓN: Igor de la Quadra. INTÉRPRETES: Xanti Agirrezabala, Maite Aizpurua, Jon Ander Urresti eta Matxalen de Pedro. ESCENOGRAFÍA Y PLÁSTICA: Miriam Isasi. VESTUARIO: Alberto Sinpatron. SONIDO: Asier Errenteria. ILUMINACIÓN: Arantza Flores. AUDIOVISUALES: Arriguri.

2023

## 1.- Alderdi orokorrak

2019ko urtarrilaren 14ko PCI/12/2019 Aginduak zehazten du zer ezaugarri, diseinu eta eduki izan behar dituen unibertsitatera sartzeko Batxilergoko ebaluazioak 2018/2019 ikasturtean (2019ko urtarrilaren 15eko BOE).

Batxilergoko titulua edo haren baliokideren bat dutenentzako probaren helburua hau da: ikaslearen heldutasun akademikoa objektiboki balioestea, eta Batxilergoan eskuratutako ezagutzak eta gaitasuna eta graduko unibertsitate-irakaskuntza ofizialak egiteko gaitasuna baloratzea.

2016ko irailaren 6ko 127/2016 Dekretuak EAEko Batxilergorako berezko curriculuma ezartzen du. Curriculum hori dago indarrean gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan, estatuko oinarrizko curriculuma ezartzen duen araudian ezarritakoaren kalterik gabe. Horrenbestez, 127/2016 Dekretuaren II. eranskinean ezarritakoa du erreferentziatzat Arte Eszenikoen azterketak.
http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/heziberri_2020/es_2_proyec/adjuntos/Decreto_127_2016_bach_c.pdf

Geroago, Hezkuntza Sailak eduki-blokeen eta adierazleen (edo ebaluazio-estandarren) garapen osoa argitaratu du, orientagarri izan dadin. Helbide honetan dago gai bakoitzaren curriculum osoa:
http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/heziberri_2020/es_2_proyec/adjuntos/Curriculum_completo_bachiller.pdf

Batxilergoko curriculumean oinarrizko eskumenak sartu direnez, justifikatuta dago *egiten jakitera* bideratutako ariketak proposatzea, ahalik eta modurik objektiboenean neurtu ahal izateko ikasleak arlo hauetan eskuratutako gaitasuna: arte eszenikoak arte-agerraldi gisa eta fenomeno unibertsal gisa ulertzea, eta obra eszenikoen eta haien autore eta emaitza nabarmenen ezagutza historiko, kultural, soziologiko eta estetikoa.

2023

## 2. – Espezifikazio-matrizea

| Eduki-blokea | Ikasketa-estandar ebaluagarriak |
|---|---|
| **1. blokea**. Arte eszenikoak eta haien testuinguru historikoa. | – Ingurunean dagoen ikuskizun eszeniko bakoitza identifikatzen du haren ezaugarrien arabera.<br>– Antzezpen mota bakoitzaren ezaugarriak azaltzen ditu, hiztegi espezifikoa eta egokia erabiliz. |
| **2. blokea**. Adierazpen eta komunikazio eszenikoa. | – Zuzen eta zehatz erabiltzen ditu adierazpen eta komunikazio eszenikoan parte hartzen duten elementuei dagozkien kontzeptu guztiak. |
| **3. blokea**. Interpretazioa arte eszenikoetan. | – Interpretazioaren teoriak ezagutzen ditu, eta modu arrazoituan azaltzen. |
| **4. blokea**. Antzezpena eta eszenaratzea. | – Zehazki identifikatzen ditu rolak eta rol bakoitzaren berezko egitekoak. |
| **5. blokea.** Ikuskizun eszenikoak jasotzea. | – Testu dramatikoen eta antzerki-ikuskizunen ezaugarriak identifikatzen ditu, eta gogoetak egiten ditu, espiritu kritikoz, haien ezaugarri eta oinarriei buruz.<br>– Kritika eszenikoak egiten ditu, zorrotz eta sendo, terminologia egokia erabiliz.<br>– Fenomeno artistikoaren konplexutasuna ulertzen du, eta bere ondorioak ateratzen ditu gaian eskuratutako ezagutza berriro landuz. |

2023

## 3. - Ebaluatzeko irizpideak

2016ko irailaren 6ko 127/2016 Dekretuan gai honi buruz dauden ebaluazio-irizpideak hartuko dira erreferentziatzat proba zuzentzeko eta baloratzeko. Proposatutakoen artean, hauek azalduko ditugu, proposatutako ariketa-ereduan duten garrantzia dela eta:

1. **Arte eszenikoen oinarrizko kontzeptuen eta antzerkiaren historiaren ezagutza sendoa eta kritikoa frogatzea bere produkzio eszenikoan erabiliz.**
    - Ikuskizun eszenikoen modalitate guztien aldiak, autoreak eta obra nabarmenak ezagutzen eta kokatzen ditu.
    - Arte eszenikoen teknizismoak ezagutzen eta aplikatzen ditu.

- Ondare eszenikoaren alderdiak integratzen ditu berak sortutako ikuskizun batean.
- Euskal antzerkiaren historiaren eta jardueraren alderdi bereizgarriak ezagutzen ditu.

2. **Identifikatu, ulertu eta azaldu egiten ditu antzezpen-forma bakoitzaren eta ikuskizun eszenikoaren oinarrizko ezaugarriak askotariko tipologiako obren azterketaren bidez.**
   - Arte eszenikoen generoak identifikatzen ditu.
   - Fenomeno eszenikoaren termino espezifikoak identifikatzen eta erabiltzen ditu.
   - Ingurunean dagoen ikuskizun eszeniko bakoitza analizatzen du bere premien arabera.

3. **Ekintza dramatikoa berregiteko, pertsonaiak diseinatzeko eta egoerak eta eszenak konfiguratzeko teknikak ezagutzea, eta proposamen eszenikoetan erabiltzea.**
   - Era askotako antzerki-testuak moldatzeko eta berregiteko teknikak ezagutzen eta erabiltzen ditu.
   - Antzerki-gidoiak idazten ditu berezko markak zainduz.
   - Pertsonaiak eraiki eta era guztietako egoeretan kokatzen ditu, eta bakoitzaren berezko ekintzak garatzen.

4. **Eszenaratze-proiektu batek dituen rol, prozesu eta faseak ezagutzea eta ulertzea, eta banako bakoitzaren atazak eta erantzukizunak baloratzea.**
   - Eszenaratze-proiektu batek behar dituen rol guztien funtzioak ezagutzen ditu.
   - Askotariko atazak egiten ditu eszenaratze-proiektu batean.
   - Aintzat hartzen du konpromisoa ikuskizun eszenikoak sortzean eta erakustean.

5. **Era guztietako testu dramatikoak eta ikuskizunak analizatzea eta iruzkinak egitea, gogoeta-jarreraz eta espiritu kritikoz.**
   - Antzerki-testuen ezaugarri eta baliabide dramatikoak analizatzea eta iruzkinak egitea.
   - Antzerki-ikuskizunen ezaugarriak identifikatzen ditu, eta haiei buruzko gogoeta egiten, espiritu kritikoz.

6. **Errealitate artistikoei buruzko oinarrizko ikerlanak egitea.**
   - Lanak egiten ditu errealitate artistikoak ezagutzeko.
   - Bere ideia eta proposamen eszenikoak eraikitzen ditu besteren ereduetatik abiatuta.
   - Autoretzaren eta sortze-lizentzien kontzeptua ezagutzen eta betetzen du.

2023

7. **Adierazpen artistiko batzuk ezagutzea eta haiei buruzko iruzkinak egitea, gogoeta-jarreraz eta espiritu kritikoz, batez ere unekoak eta bere ingurukoak.**
   - Ikusle gisa joaten da bere inguruko adierazpen artistiko batzuk ikustera.
   - Obra klasiko eta garaikideak irakurtzen ditu begirada ludikoa eta espiritu kritikoa erabiliz.
   - Uneko jarduera artistikoen ezaugarriak ezagutzen ditu.
   - Antzerki-ikuskizunen iruzkinak egiten ditu, jarrera kritikoz

**4.- Kalifikazio-irizpideak**

Probaren A eta B aukerek atal berak dituzte. Probak antzerki-obra edo -pasarte bat izango du beti, eta, harekin batera, galdera sorta bat, eta ikasleek, modu egokian erantzungo badute, pentsamendu kritikorako eta gogoetarako gaitasuna eta heldutasuna izan behar dute. 90 minutuko iraupena izango du, eta hiru atal izango ditu.

**1. atala. Obraren iruzkina eta analisia (4 puntu)**
Alderdi hauen arabera egin behar dira iruzkina eta analisia:

a) Obraren estilo- eta argumentu-ezaugarrien azterketa.
   - Antzerki-generoa (0,5 puntu).
   - Argumentua eta obran ageri den gatazka nagusia (0,5 puntu).
   - Iritzi pertsonala, aztertutako obrari buruzko argudio teknikoetan oinarritua (0,5 puntu).
   - Argumentu horrek gaurkotasuna duen ala ez (0,5 puntu).

b) Egoera eta testuinguruaren karakterizazioa.
   - Obraren fitxa: egilea, garaia, kokapen geografikoa (0,5 puntu).
   - Egilearen ideia artistikoak (0,5 puntu).
     Aztertutako obra zer alderdi soziokultural eta estetikotan kokatzen den (0,5 puntu).
     Garai horretako antzerki- eta arte-korronteak (0,5 puntu).

Antzerki-obraren iruzkinean eta analisian, hauek balioetsiko dira: koherentzia eta kohesioa, aberastasun lexikoa, hizkuntza-adierazpen egokia, zuzentasun ortografikoa eta gaiaren oinarriei buruzko ezagutzak.

**2. atala. Antzerki-teoriaren edo -kritikaren gaineko testu labur bati buruzko iruzkina (3 puntu)**
Testu-iruzkina orri betekoa izango da gehienez, eta alderdi hauek aztertu behar ditu:
- Testuko ideia nagusiak eta bigarren mailako ideiak identifikatzea (1 puntu).
- Testuan agertzen diren zenbait hitz edo termino tekniko estetiko edo interesgarri adieraztea eta azaltzea (1 puntu).
- Testuan ageri diren ideiei buruzko iritzi pertsonala, zure eszenaratze-esperientzietan oinarritua (1 puntu).

2023

**3. atala. Termino teknikoei buruzko galderak (3 puntu)**
Erantzunek argiak eta laburrak izan behar dute. Bost lerro nahikoak dira bakoitzeko. Zuzentasun terminologikoa eta sintaktikoa balioetsiko da, eta 0,5 puntu emango zaio bakoitzari.

**4.- <u>Obra gomendatuak</u>**

1. Aristofanes: *Lisistrata.*
2. W. Shakespeare: *Hamlet*
3. Cervantes: *Gauza zoragarrien erretaula*
4. Calderón de la Barca: *Bizitza ametsa da*
5. Henrik Ibsen: *Panpinen etxea*
6. O. Wilde: *Ernesto izatearen garrantzia*
7. M. Mihura: *Hiru xistera*
8. R.M. del Valle-Inclán: *Buhame-argiak*
9. Lorca*: Bernarda Albaren etxea*
10. Bertolt Bretch: *Hirugarren Reicharen izua eta miseria («Furcht und Elend des Dritten Reiches»)*
11. Samuel Becket: *Godoten zain*
12. Harold Pinter: *Maitalea*
13. Jordi Galceran: *Gronhölm metodoa*
14. Juan Mayorga: *Azken lerroko mutila*

2023

## 1.- Aspectos generales

La Orden PCI/12/2019, de 14 de enero, determina las características, el diseño y el contenido de la evaluación de Bachillerato para el acceso a la Universidad para el curso 2018/2019 (BOE del 15 de enero de 2019).

La prueba para quienes se encuentren en posesión del título de Bachiller o equivalente tiene como finalidad valorar, con carácter objetivo, la madurez académica del estudiante, así como los conocimientos y capacidades adquiridos en el Bachillerato y su capacidad para seguir con éxito las enseñanzas universitarias oficiales de Grado.

El Decreto 127/2016, de 6 de septiembre, establece el currículo propio de la CAPV para el Bachillerato. Es el currículo actualmente vigente en los centros educativos del País Vasco sin perjuicio de lo dispuesto en la normativa que establece el currículo básico de carácter estatal. En consecuencia, el examen de Artes Escénicas tiene como referencia lo establecido en el anexo II del Decreto 127/2016.
http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/heziberri_2020/es_2_proyec/adjuntos/Decreto_127_2016_bach_c.pdf

Posteriormente el Departamento de Educación ha publicado el desarrollo completo de los bloques de contenido y de los indicadores (o estándares de evaluación), con carácter orientador. Este currículo completo de cada una de las materias se encuentra en la dirección:
http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/heziberri_2020/es_2_proyec/adjuntos/Curriculum_completo_bachiller.pdf

La introducción en el currículo de Bachillerato de las competencias básicas justifica unas propuestas de ejercicios orientados hacia el *saber hacer,* que midan con la mayor objetividad posible la competencia adquirida por el estudiante en la comprensión de las artes escénicas como manifestación artística y como fenómeno universal, así como en el conocimiento histórico, cultural, sociológico y estético de las obras escénicas y de sus autores y representaciones más significativos.

2023

## 2. – Matriz de Especificaciones

| Bloque de contenido | Estándares de aprendizaje evaluables |
|---|---|
| **Bloque 1**. Las artes escénicas y su contexto histórico. | – Identifica los diferentes tipos de espectáculo escénico presentes en el entorno en función de sus características.<br>– Explica, utilizando el vocabulario específico y adecuado, las características de las diferentes formas de representación. |
| **Bloque 2**. La expresión y la comunicación escénica. | – Maneja con propiedad todos los conceptos referidos a los elementos que intervienen en la expresión y la comunicación escénica. |
| **Bloque 3**. La interpretación en las artes escénicas. | – Conoce y explica razonadamente las diferentes teorías de la interpretación. |
| **Bloque 4**. La representación y la escenificación. | – Identifica con precisión los diferentes roles y las actividades y tareas propias de cada rol. |
| **Bloque 5.** La recepción de espectáculos escénicos. | – Identifica y reflexiona sobre las características y presupuestos de textos dramáticos y espectáculos teatrales con espíritu crítico.<br>– Realiza críticas escénicas, con rigor y solidez, utilizando la terminología adecuada.<br>– Comprende la complejidad del fenómeno artístico extrayendo conclusiones propias y reelaborando los conocimientos adquiridos en la materia. |

2023

## 3. - Criterios de evaluación

La referencia para la corrección y la valoración de la prueba son los criterios de evaluación que se incluyen en el Decreto 127/2016, de 6 de septiembre, para esta materia. De entre los propuestos, señalamos los siguientes por su relevancia en el modelo de ejercicio propuesto:

1. **Demostrar un conocimiento sólido y crítico de los conceptos fundamentales de las artes escénicas y la historia del teatro mediante su uso en la producción escénica propia.**

- Reconoce y sitúa periodos, autores y autoras y obras significativas de la historia de las diferentes modalidades de espectáculo escénico.
- Conoce y aplica los tecnicismos de las artes escénicas.
- Integra aspectos del legado escénico en un espectáculo de su creación.
- Reconoce aspectos singulares de la historia y la actividad teatral vasca.

2. **Identifica, comprende y explica las características fundamentales de las diferentes formas de representación y del espectáculo escénico a través del análisis de obras de diversa tipología.**
   - Identifica los diferentes géneros de las artes escénicas.
   - Identifica y emplea términos específicos básicos del hecho escénico.
   - Analiza los diferentes tipos de espectáculo escénico presentes en el entorno en función de sus necesidades.

3. **Conocer las diferentes técnicas para la recreación de la acción dramática, el diseño de personajes y la configuración de situaciones y escenas, utilizándolas en las diferentes propuestas escénicas.**
   - Conoce y utiliza las diferentes técnicas para la recreación y la adaptación de textos teatrales de diferente tipología.
   - Escribe guiones teatrales respetando las marcas propias que le son propias.
   - Construye personajes y los sitúa en todo tipo de situaciones, desarrollando las acciones propias de los mismos.

4. **Conocer y comprender los roles, procesos y fases presentes en un proyecto de escenificación, valorando las tareas y responsabilidades de cada individuo.**
   - Conoce las funciones de los diversos roles necesarios en un proyecto de escenificación.
   - Realiza tareas diversas dentro de un proyecto de escenificación.
   - Valora la implicación en la creación y la exhibición de espectáculos escénicos.

5. **Analizar y comentar, con actitud reflexiva y espíritu crítico, todo tipo de textos dramáticos y espectáculos.**
   - Analiza y comenta las características y recursos dramáticos de los textos teatrales.
   - Identifica y reflexiona, con espíritu crítico, sobre las características de los espectáculos teatrales.

6. **Realizar trabajos de investigación básicos sobre las diferentes realidades artísticas.**
   - Elabora trabajos para conocer las diferentes realidades artísticas.
   - Construye ideas y propuestas escénicas propias a partir de modelos

2023

ajenos.
- Respeta y conoce el concepto de autoría y las diferentes licencias creativas.

7. **Conocer y comentar, con actitud reflexiva y espíritu crítico, diferentes expresiones artísticas, atendiendo especialmente a las del momento y las de su entorno.**
   - Acude como público a ver diferentes expresiones artísticas de su entorno.
   - Lee con mirada lúdica y espíritu crítico obras clásicas y contemporáneas.
   - Reconoce las características de las diferentes manifestaciones escénicas del momento.
   - Elabora comentarios, con actitud crítica, de los espectáculos teatrales.

## 4.- Criterios de calificación

Las dos opciones A y B de la prueba constan de los mismos apartados. La prueba incluirá siempre una obra o fragmento teatral acompañado de una serie de preguntas que requerirán del alumnado capacidad de pensamiento crítico, reflexión y madurez. Tendrá una duración de 90 minutos y constará de tres apartados.

**Apartado 1. Comentario y análisis de la obra teatral (4 puntos).**
El comentario y análisis se realizará en función de los aspectos siguientes:

a) Análisis de las características estilísticas y argumentales de la obra.
   - Género teatral (0,5 puntos).
   - Argumento y conflicto principal que aborda la obra (0,5 puntos).
   - Opinión personal fundamentada en argumentos técnicos sobre la obra analizada (0,5 puntos).
   - Vigencia de tal argumento hoy en día (0,5 puntos).

b) Situación y caracterización del contexto.
   - Ficha de la obra: autor/a, época, localización geográfica (0,5 puntos).
   - Ideas artísticas del/la autor/a (0,5 puntos).
     Aspectos socioculturales y estéticos en los que se enmarca la obra analizada (0,5 puntos).
     Corrientes escénico-artísticas de la época (0,5 puntos).

En el comentario y análisis de la obra escénica se valorará la coherencia y cohesión, la riqueza léxica, la utilización de la expresión lingüística adecuada, la corrección ortográfica y los conocimientos sobre los fundamentos de la materia.

2023

**Apartado 2. Comentario de un texto breve sobre teoría o crítica teatral (3 puntos).**
El comentario de texto tendrá como máximo un folio y tratará sobre los siguientes aspectos:

- Identificación de las ideas principales y de las ideas secundarias del texto (1 punto).
- Señalar y explicar algunas palabras o términos técnicos estéticos o de interés que aparecen en el texto (1 punto).
- Opinión personal con respecto a las ideas vertidas en el texto fundamentadas en tus propias experiencias de puesta en escena (1 punto).

**Apartado 3. Preguntas sobre Términos Técnicos (3 puntos).**
Las respuestas deben ser claras y breves; será suficiente con cinco líneas como máximo para cada una de ellas. Se valorará la corrección terminológica y sintáctica y cada una de ellas se calificará con 0,5 puntos.

**4.- <u>Obras recomendadas</u>**

1. Aristófanes: *Lisístrata*
2. W. Shakespeare: *Hamlet*
3. Cervantes: *El retablo de las maravillas*
4. Calderón de la Barca: *La vida es sueño*
5. Henrik Ibsen: *Casa de muñecas*
6. O. Wilde: *La importancia de llamarse Ernesto*
7. M. Mihura: *Tres sombreros de Copa*
8. R.M. del Valle-Inclán: *Luces de Bohemia*
9. Lorca*: La casa de Bernarda Alba*
10. Bertolt Bretch: *Terror y Miseria del Tercer Reich («Furcht und Elend des Dritten Reiches»)*
11. Samuel Becket: *Esperando a Godot*
12. Harold Pinter: *El amante*
13. Jordi Galceran: *El Método Gronholm*
14. Juan Mayorga: *El chico de la última fila*

2023